

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Haur eta gazteen aisialdian prestatzeko eskoletarako 2024ko dirulaguntzen deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Gazteriaren Foru Erakundeak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak (2022ko urtarrilaren 5eko ALHAO, 2. zenbakia).

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2024ko otsailaren 12ko bileran onetsi zuen haur eta gazteen aisialdian prestatzeko eskoletarako deialdi hau, zeina aipatutako oinarri orokorren eta hurrengo ataletan ezarritakoaren mende egongo baita.

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren helburua dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea da, haur eta gazteen aisialdirako prestakuntza eskolei laguntzeko, aisialdian hurrekin eta gazteekin esku hartzen duten pertsonentzako prestakuntza ikastaroak egin ditzaten.

2. Erakunde onuradunak

- Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak, egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra Araban edo Trebiñuko konderrian dutenak, Araban ofizialki onartuak eta ikastaroak lurralde horretan ematen dituztenak.

- Beste lurralde batean onartuta dauden eta ikastaroak ofizialki Araban onartu zaizkien haur eta gazteen aisialdirako eskolak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren azaroaren 2ko haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak onartzea arautzen duen 419/1994 Dekretuan eta dekretu horren I. eta II. eranskinak eguneratzen dituen 2016ko urriaren 27ko Aginduan eta otsailaren 7ko 18/2023 Dekretuan, 419/1994 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena, eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte eskolek.

Baztertu egingo dira Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorretako hirugarren klausulan zerrendatutako betekizunak betetzen ez dituzten erakundeak.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak eta gastuak

3.1. Diruz lagundu ahal izango dira ikastaro hauek antolatu eta gauzatzearen ondoriozko gastuak:

- Aisialdiko hezkuntza jardueretako begiraleentzako ikastaroak.
- Aisialdiko hezkuntza jardueretako zuzendarien ikastaroak.

Diruz lagundutako ikastaroak 2023/2024 ikasturtean eman behar dira, hau da, 2023ko irailetik 2024ko abuztuaren 31ra bitartean. Ikastaro horiek behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi behar dira, aipatutako 419/1994 Dekretuaren arabera, eta, edonola ere, dirulaguntza eskatu baino hama-bost egun natural lehenago.

Arabian onartutako eskolei gehienez ere begirale edo zuzendari izateko hiru ikastaro lagunduko zaizkie diruz. Salbuespen gisa, beste ikastaro bat ere lagundu ahal izango da diruz, baldin eta Vitoria-Gasteiz ez den Arabako beste edozein herritan egiten bada. Lehen aipatutako ikastaroetatik gehienez ere bi izan ahal dira trinkoak. Ikastaro trinkotzat joko dira prestakuntza teoriko-praktikoko gaiak sei eta zortzi ordu bitarteko moduluetan ematen dituztenak.

Beste lurralde batean onartutako eta Araban ikastaroak emateko baimena daukaten eskolei gehienez ere begirale edo zuzendari izateko bi ikastaro lagunduko zaizkie diruz.

3.2 Dirulaguntza emateko ebazpenean bestelakorik adierazten ez bada, ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

- a) Inbertsio gastuak, salbu eta ikastaroak gauzatzeko behar den material ez-suntsikorra erostea; diruz lagun daitekeen gehieneko muga 2.500,00 euro da.
- b) Ondasun higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.
- c) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).
- d) Eskola ordutegizat hartzen den ordutegian egiten diren ikastaroak.

4. Eskaerak aurkeztea

4.1 Eskaerak hogeiei egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Eskaerak bitarteko elektronikoan bidez aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>); horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute aldez aurretik. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta erakunde egiaztatzaile batek jaulkitako egiaztigiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo atal honetara: ezagutu egoitza – nola sartu.

4.2 Erakunde eskatzaileak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen inprimakian eskatzen den informazioa bete beharko du, eta horrez gain, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Emango diren ikastaroen zerrenda, aldez aurretik jakinarazi behar direnak:
 - Helburuak.
 - Plangintza eta garapena.
 - Zein herritan egingo den.
 - Zein hizkuntzatan gauzatuko den.
 - Ikastaroetan genero ikuspegia txertatzea.
 - Parte hartzaileen kopurua.
- b) Ikastaro bakoitza egiteko aurreikusitako gastuen eta diru sarreraren aurrekontu xehatua. Eskatzaileak adierazi beharko du beste erakunde edo entitate publiko edo pribatu batzuei zein laguntza eskatu dizkien eta zein ekarpen propio dituen.
- c) Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntzako prestakuntza eskola izatearen aitorpena. Gazte-riaren Foru Erakundearen aitorpen hori aurretik aurkeztu duten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta geroago aldaketaren bat egin badute.
- d) Erakunde eskatzailea BEZetik salbuetsita dagoela adierazten duen ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana, edo erakundeko lehendakari kargua doakoa dela adierazten duen aitorpena.
- e) Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria (ordainagiriarekin batera poliza aurkeztu behar da, baldin eta baldintzak aldatu badira, konpainia aldatu bada, etab.).
- f) Soldatapeko langileen zerrenda; zehaztu behar da zein lanpostu betetzen duten, zer ordutegi daukaten, kontratuaren datak zein diren, zer arduraldi daukaten eta horrek zer kostu daukan.

Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, egiaztatu beharko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta ez diotela ezarri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako debekuren bat. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egindako egiaztigiriak aurkeztu behar ditu. Dirulaguntza 800,00 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, bat etorritik 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin. Zerga betebeharrei dagokienez, nahikoa izango da egunean daudela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztigiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

Egoitza soziala beste lurralde batean duten baina Araban ordezkaritza iraunkorra duten erakundeek agiri bidez egiaztatu beharko dute egoera hori, eta nahikoa izango da behin bakarrik aurkeztea, salbu eta ondoren aldaketaren bat egiten bada. Bestalde, egoitza sozialari dagokion Zerga Ogasunean zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du bai oinarri orokor hauetan, bai deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Aurrekontu baliabideak eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Berrogei mila (40.000,00) euro bideratuko dira, 2024rako luzatutako Gazteriaren Foru Erakundearen gastu-aurrekontuko 71100. G/232751/48100751 partidaren kontura.

Deialdiari, gehienez, hamar mila euroko kopuru gehigarri bat erantsi ahal izango zaio, baldin eta aurrekontu krediturik badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da; argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko, ez eta ebazteko epea berriro hasten denik ere.

Aurrekontu zuzkidura hori oinarri hartuta, dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehaztuko da, honako irizpide hauen arabera:

a) Esleitutako aurrekontuaren ehuneko 20 lurraldean onartutako eskola eskatzaileei banatuko zaie; kopuru finko bera emango zaie guztiei.

Gainerako zenbatekotik:

b) Ehuneko 70 Araban onartutako eskolen artean banatuko da, eta ehuneko 30 beste lurralde batean onartuta dauden eta Araban ikastaroak antolatzen dituztenen artean. Kasu batean zein bestean, eskola eskatzaileek lortzen dituzten puntuaren arabera proportzioan emango da zenbatekoa, baremo honen arabera:

1. Aisialdiko begiralea, 150 orduko ikastaroa	3 puntu
Ikastaroa euskaraz bada	4 puntu

Moduluei dagokienez, puntuazio hau aplikatuko da:

		Gaztelaniaz	Euskaraz
• Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-jarduerak	60 ordu	1,2 puntu	1,60 puntu
• Talde- eta hezkuntza-prozesuak haur eta gazteen aisialdian	30 ordu	0,6 puntu	0,80 puntu
• Animazioko teknikak eta baliabideak aisialdiko jardueretan	60 ordu	1,2 puntu	1,60 puntu

2. Aisialdiko zuzendara, 290 orduko ikastaroa	6 puntu
Ikastaroa euskaraz bada	8 puntu

Moduluei dagokienez, puntuazio hau aplikatuko da:

		Gaztelaniaz	Euskaraz
• Talde- eta hezkuntza-prozesuak haur eta gazteen aisialdian	30 ordu	0,6 puntu	0,80 puntu
• Animazioko teknikak eta baliabideak aisialdiko jardueretan	60 ordu	1,2 puntu	1,60 puntu
• Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-proiektuen plangintza, antolaketa, kudeaketa eta ebaluazioa	120 ordu	2,5 puntu	3,30 puntu
• Aisialdiko begiraleen taldea koordinatu eta dinamizatzea	80 ordu	1,7 puntu	2,30 puntu

Puntuazioaren araberako banaketa sistema bat aplikatuko da. Horretarako, aurrekontu zuzkida zati erakunde eskatzaile guztientzako puntuazio baremoa aplikatzearen ondorioz lortutako puntuaren guztizko batura egingo da, eta horrek puntuaren balioa emango digu. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, betiere zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta, ez badu gainditzen jardueraren gastua.

Aurrekontu zuzkidura agortzeko behar adina banaketa egingo dira.

c) Dirulaguntzaren zenbatekoa memorian aurkezten den diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 65 izango da, gehienez.

d) Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero 500,00 eurotara heltzen ez diren eskaerek.

6. Balorazio eta ebazpen batzordea

a) Eskabideak balorazio batzordeak aztertuko ditu, dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorretan adierazitako osaeraren arabera.

b) Aurkeztutako eskabideak deialdian finkatutako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak esleipen proposamenaren txostena egingo du.

c) Eskatzaileak ez du entzunaldiko izapiderik izango, ebazpenean ez baitira aintzat hartuko eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik.

d) Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia aldatzen duen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta antolatzeke eskumena duen organoak emango du ebazpena, eskabidea onartzeko edo ukatzeko, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

e) Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, eskaeran adierazitako egoitzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan xedatutako moduetan.

f) Ebazpenak ez du administrazio bidea amaituko, eta haren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabete izango da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

7. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

Ehuneko 70 aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza ematean, eta gainerako ehuneko 30a hurrengo atalean zehazten den memoria aurkeztutakoan. Justifikazio memoria aurkezten ez bada, aurreratutako zenbatekoa itzuli beharko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan zehazten diren baldintzetan.

Dirulaguntza 20.000,00 eurotik gorakoa bada, nahitaezkoa izango da Ogasun eta Aurrekontu Saileko Idazkaritza Teknikoaren aldeko txostena.

8. Dirulaguntza justifikatzea

8.1 Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek 2024ko irailaren 30era arteko epea izango dute egoitza elektronikoaren bidez aurkezteko deialdiaren bidez diruz lagundutako jardueren amaierako memoria. Hona hemen dokumentu horrek zer jaso beharko duen gutxienez:

a) Egindako ikastaroen memoria, honako hauek jaso beharko dituen: data, parte hartzaileak, lekua eta ikastaroaren balorazio orokorra.

b) Ekonomia laburpena:

1. Gastuen zerrenda.

2. Gastuen eta diru sarreren balantzea (izandako gastu eta diru sarreren deskribapena).

3. Diruz lagundutako eskolaren izenean egindako gastuen fakturak edo egiaztagiria, ikastaroak emateko gastuen guztizko zenbatekoarenak.

- 200,00 euro baino gehiagoko gastuen fakturak aurkeztuz gero, ordainduta daudela egiaztatatu beharko da.

- 200,00 euro baino gutxiagoko gastuen fakturak aurkeztuz gero, gastuen justifikazio sinplifikatua aurkeztu beharko da, honako datu hauek jaso beharko dituenak: data, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta ordainketa data.

Gazteriaren Foru Erakundeak aurkeztu behar izan ez diren eta egoki jotzen dituen agiriak eskatu eta egiaztatu ahal izango ditu, laginketa tekniken bidez; horretarako, entitate onuradunari eskatu ahal izango dio hautatutako gastu justifikazioak bidaltzeko.

4. Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria, justifikazio datan indarrean ez bazegoen.

5. Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen gaineko zerga araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.

6. Ez dira onartuko 2024ko ekitaldirako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoa edo handiagoa edo atzerriko monetan haren kontrabalioa duten eragiketen eskudiruzko ordainketak. Aipatutako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun edo zerbitzu ematea zatikatu ahal izan den hiru-garren beraren aldeko eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainketa egiaztagirien jatorrizkoak eskatzen baditu, zigilu batez markatuko dira, eta bertan zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren adierazi beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo zati batean egozten zaion ere. Azken kasu horretan, dirulaguntzari dagokion zatiaren zenbateko zehatza ere adierazi beharko da.

Diruz lagundu ahal izango da gizarte izaera duten erakunde edo elkarteek eskainitako zerbitzuengatik bere gain hartutako BEZa, izaera hori aitortuta izan ala ez, baldin eta egoera bakoitzean aplikagarri diren baldintzak betetzen badituzte (BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikulua, arau horren 20. Bat artikulua 8. apartatua jasotako zerga salbuespena egiteko).

c) Langile gastuen justifikazioa:

Nahitaez aurkeztu behar dira soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainagiriak.

Langilearen edo soldatapekoen lan egoera zehaztu beharko da, honako hau jasotzen duen taula bat aurkeztuz: langilea edo langileak, dedikazio denbora, hilabetea, soldata likidoa, PFEZren atxikipena, langileen Gizarte Segurantzaren zenbatekoa, enpresaren Gizarte Segurantzaren zenbatekoa eta guztizkoa.

Era berean, erakundeak kontratatutako pertsona proiektuari atxikita egon den aldiko jatorrizko nominak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira. Hauetako edozein onartuko da soldatak ordaindu izanaren frogagiritzat:

- Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

- Langileak sinatutako jatorrizko idazkia, zenbatekoa kobratu duela eta dagokion hilekoa zehazten dituenak.

— Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta, horrekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiria, zehazten duena langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla eta adierazten duena langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion.

Horrez gainera, nahitaez aurkeztu beharko dira RLC ereduak (Kotizazioen Likidazioen Zerrenda) eta RNT ereduak (Langileen Izen Zerrenda), bai eta dagozkien kotizazioak ordaindu izana frogatzen duten agiriak ere.

Berariaz baimena ematen duten elkarte eta erakundeek ez dute zertan eman aurkeztutako hiruhileko 110 ereduak (PFEZren konturako atxikipenak eta diru sarrerak), ez eta horiek ordaindu izanaren egiaztagiriak ere, ezta 190 ereduak ere (atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena).

8.2. Halaber, dirulaguntza eman duen ebazpenak xedatutako beste edozein agiri aurkeztu beharko da.

9. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 18. artikuluan ezarritakoarekin, dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatzen badira, edota diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten beste ekarpen batzuk lortzen badira aldi berean.

10. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 12a

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN